

2017/01

**Gaia: Hurtado de Mendoza Kaleko 8/10 orubea eta lokala egokitzeko obra kontratua**

**Espediente zenbakia: 6.2.2./1-17**

**Espediente tramitatzailerak: Urigintza, Obra eta Ingurumen Saila**

Jurdana Uriarte Lejarraga, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak- Sektorre Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onetsi duenak- Bigarren Xedapen Gehigarriaren 7. idatzi-zatian ezartzen duenarekin bat etorritik eta irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuak -Toki Administrazioetako Gaikuntza Nazionalako Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautu duenak- 3. artikulua c idatzi-zatian ezartzen duenarekin bat etorritik, hurrengo **TXOSTENA** igorri dot:

#### **1. Aurrekariak**

- Kontratuaren helburua Hurtado de Mendoza Kaleko 8-10 orubea eta lokala egokitzea da.

- 2017ko ekainaren 16an Kredituaren atxikipena egin zen (RC 2016/000836) 190.252,78 eurogatik.

- Kontratatu beharra espedientean zuritu da, Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariaren 2017ko urriaren 26ko txostenean. Txosten hori 2017ko urriaren 26an Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko Zinegotzi ordezkariak berretsi du.

- 2017ko urriaren 27an Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko arkitektoak txostena igorri du, zehaztuz Hurtado de Mendoza kaleko 8-10eko orubea eta lokala publikoak direla eta proiektuarekin aurrera egiteko lurren erabilgarritasuna udalak duela, eta adieraziz proiektuaren 1.fasea indarrean dagoen hirigintza araudiarekin eta errealtate geometrikoarekin bat datorrela.  
(Zuinketa akta)

- Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko administrazio orokorreko teknikariak administrazio-baldintza zehatzen orrien proposamena aurkeztu du, lizitazioaren prozedura publizitate gabeko negoziatua izanik eta irizpide ekonomikoa bakarrik kontuan hartuta.

- 2017ko azaroaren 3an Kontuhartzaileak ikuskatze mugatuaren txostena eta finantza txostena igorri du

## **2. Zuzenbideko Oinarriak**

### **2.1. Kontratuaren izaera juridikoa.**

Kontratuaren xedea ikusita, obren administrazio-kontratua da, guzti hori 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bategina onartzen duenaren (aurrerantzean SPKLTB) 6 eta 19.artikuluak kontuan hartuta.

I.Eranskineko hiru taldetan sar liteke: 45.2 *Construcción general de inmuebles y obras de ingeniería civil*, 45.3 *Instalación de edificios y obras*, 45.4 *Acabado de edificios y obras*

CPV (Erreferentzia zenbakiak): 45200000, 45300000 eta 45400000, hurrenez hurren.

### **2.2. Aplikatu beharreko legeria.**

SPKLTBaren 2, 5 eta 19. artikuluetan ezarri denarekin bat etorritz, obra-kontratu administratibo hau prestaketari, esleipenari, ondorioei eta azkentzeari begira arau hauek zuzenduko dituzte:

Azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onetsi duena

Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duena

Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoen Kontratuaren Legearen Araudi Orokorra onartzen duena, beti ere, SPKLTBaren kontra ez doanetan

Bestelako garapen xedapenak

Modu osagarrian, Administrazio Zuzenbideko gainerako arauak

Eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak

### **2.3. Kontratatzeke eskumena.**

- Kontratuaren prezioa: 133.592,96+ BEZa (Aurrekontuaren sarrera arrunten -12.965.203,65- %10a baino gutxiago eta, beti ere, 6.000.000 euro baino gutxiago).

- Kontratatzeke epea: 3 hilabete (4 urte baino gutxiago).

SPKLTBaren 51. artikulua eta II. Xedapen Gehigarriaren arabera, Kontratazio organoa Bermeoko Udaleko Alkatea da, eta udalaren izenean jardungo du. Hala ere, 2016ko urtarrilaren 25ean 43. Alkatetzaren Dekretuz eskumen hori eskuordetuta dago Tokiko Gobernu Batzarrera.

Organoak administrazio-kontratua esleitzeko ahalmena du eta, hortaz, kontratua interpretatzeko, betetzean sortzen diren zalantzak konpontzeko, herri-intereseko arrazoiak direla-eta aldatzeko, suntsiarazpena erabakitzeko eta suntsiarazpenaren ondoreak zein diren zehazteko ahalmenak ditu, ezargarri diren arauak ezartzen dutenari lotuta. Horren inguruan ematen dituen erabakiak betearazleak dira; nolahi ere, kontratatzaileak auzibide eskudunera jo dezake aurka egiteko.

### **2.4. Kontratazio-espeditentea.**

Bideratu den espeditentean jaso dira SPKLTBaren 109. artikuluan aipatzen diren agiriak:

1. *La celebración de contratos por parte de las Administraciones Públicas requerirá la previa tramitación del correspondiente expediente, que se iniciará por el órgano de contratación motivando la **necesidad del contrato** en los términos previstos en el art. 22 de esta Ley.*

2. *El expediente deberá referirse a la **totalidad del objeto del contrato**, sin perjuicio de lo previsto en el apartado 3 del art. 86 acerca de su eventual división en lotes, a efectos de la licitación y adjudicación.*

3. Al expediente se incorporarán el **pliego de cláusulas administrativas particulares y el de prescripciones técnicas (en este caso se incorpora el proyecto técnico)** que hayan de regir el contrato. En el caso de que el procedimiento elegido para adjudicar el contrato sea el de diálogo competitivo regulado en la sección 5ª, del Capítulo I, del Título I, del Libro III, los pliegos de cláusulas administrativas y de prescripciones técnicas serán sustituidos por el documento descriptivo a que hace referencia el art. 181.1.

Asimismo, deberá incorporarse el **certificado de existencia de crédito o documento que legalmente le sustituya, y la fiscalización previa de la intervención**, en su caso, en los términos previstos en la Ley 47/2003, de 26 de noviembre.

4. En el expediente **se justificará adecuadamente la elección del procedimiento y la de los criterios** que se tendrán en consideración para adjudicar el contrato.

5. Si la financiación del contrato ha de realizarse con aportaciones de distinta procedencia, aunque se trate de órganos de una misma Administración pública, se tramitará un solo expediente por el órgano de contratación al que corresponda la adjudicación del contrato, **debiendo acreditarse en aquél la plena disponibilidad de todas las aportaciones y determinarse el orden de su abono, con inclusión de una garantía para su efectividad.**

## **2.5. Izapideak, prozedura eta esleitzeko modua**

Kontratu honen esleipena publizitate gabeko negoziatuaren bidez egingo da, zenbatekoa dela eta, SPKLTBaren 169-178 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik.

Kontratu hau izapidetuko da modu arruntean, SPKLTBaren 109 eta 110. artikuluekin bat etorritik.

SPKLTBko 150. artikuluan arautu denari jarraituta, aurkeztu diren eskaerak balioesteko eta ekonomiaren ikuspegitik eskaintzarik onuragarriena zein den jakiteko, prezioa hartuko da kontuan:

Esleitzeko modu hori egoki jotzen da; eta esleipen-irizpidea SPKLTBko 150.1. artikuluan xedatzen denarekin eta lehia-printzipioarekin bat dator.

## **2.6. Lizitazio-iragarkia eta epea**

Administrazio-klausula berezien agiriak adierazten du eskaerak 10 eguneko epean aurkeztu behar direla, gonbidapena bidaltzen denetik

zenbatzen hasita. Hori guztia, SPKLTBaren 143 eta 177 artikuluan zehazten duenarekin bat dator.

### **3. Ondorioak**

Azaldutakoa horrela izanik, ez dago legezko oztoporik administrazio-baldintza zehatzen orriak Tokiko Gobernu Batzarrak (alkateak eskuordetuta) onetsi eta proposatutako prozedurarako deialdia ireki dezan.

Hori da nire ustea, nahiz eta zuzenbidean oinarritutako bestelako irizpiderik egon litekeen. Hori horrela, kontratazio organoak egoki deritzona erabakiko du.

Bermeon, 2017ko azaroaren 6an

Idazkaria,

Jurdana Uriarte Lejarraga



